

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

ZEHARKAKO ZERGEN ZERBITZUA- BEZAREN ETA ZERGA BEREZIAREN ATALA

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun Finantza eta Aurrekontu, Saileko foru diputatua, 55/2022 Foru Agindua, otsailaren 2koa, Foru Agindua, onesten duena 560 ereduia "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" eta ezartzekoa hura nola eta zein prozedurari jarraituz aurkeztu

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 33. artikuluaen Bat apartatuan xedatutakoaren arabera, zerga bereziak itundutako zergak dira, eta Estatuak une bakoitzean ezarritako funtsezko eta formazko araei jarraituz arautuko dira.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, hala ere, aitorten eta sarrera ereduak onesteko eta likidazioaldi bakoitzeko sarrera epeak zehazteko gaitasuna izango dute. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ez dira Estatuako Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak izango.

Zerga Berezien abenduaren 28ko 38/1992 Legeak, hura azaroaren 27ko 28/2014 Legeak aldatu ondoren, elektrizitatearen gaineko zerga fabrikazioaren gaineko zerga berezi gisa konfiguratzeari utzi zion, eta elektrizitatearen kontsumoaren gaineko zerga berezia izatera igaro zen; fase bakarrean, kontsumorako energia elektrikoaren hornidura zergapetzen du, bai eta ekoizleek sortutako energia elektrikoaren kontsumoa ere. Xedapen hori Arabako Araudira egokitu zen Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 30eko 1/2019 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren bidez.

Zerga Bereziak arautzen dituen otsailaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 105. artikulua ezartzen duenez, zerga honen zergadunek dagozkien autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte, bai eta, aldi berean, zerga zorra ordaindu ere; Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak autolikidazio horiek aurkezteko prozedura eta epea ezarriko ditu. Gainera, xedatzen du ezen bai autolikidazioa aurkeztera behartuta daudenean bai aipatutako araugintzako dekretuan araututako salbuespen eta murrizketa jakin batzuen onuradunek establezimenduaren kokalekuko bulego kudeatzaileari dagokion lurralde erregistroan inskribatzeko eskatu beharko diotela.

Xedapen hori berez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren otsailaren 12ko 52/2015 Foru Aginduaren bidez, 560 ereduia onetsi zen, elektrizitatearen gaineko zerga bereziarena, hain zuzen ere.

2015eko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zenetik, aldaketa handiak egin zaizkio elektrizitatearen gaineko zerga berezia arautzen duen araudiari, eta aldaketa horien ondorioz egin da foru agindu hau. Aldaketa horiek, besteak beste, zergaren salbuespen, murrizketa, zerga tasa, likidazio eta ordainketa kasuei eragiten diete.

Bestalde, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduaren bidez, pertsona eta erakunde jakin batzuek zerga ereduak eta eskaerak Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen ditu, bai eta jarduera ekonomikoak garatzen dituzten zergapekoek eta sozietateen gaineko zergaren zergadunek hainbat autolikidazio eredu bide telematikoz aurkezteko betebeharra ere. Autolikidazio eredu horien artean 560 ereduia "Elektrizitatearen gaineko zerga. Autolikidazioa" dago.

Aurreko guztiaren arabera, foru agindu honen xedea da onespena ematea 560 ereduari "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" eta hura aurkezteko prozedura ezartzea.

Zeharkako Zergen Zerbitzuaren buruak horren harira emandako txostena aztertu da. Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau:

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 560 eredia onestea

Onespena ematea 560 ereduari "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa", zeina foru agindu honen eranskin baitoa.

2. artikulua. 560 eredia aurkeztu behar dutenak

Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zergadunek 560 eredia aurkeztu behar dute, eta, hala badagokio, zerga zorra ordaindu. Zerga Berezien otsailaren 16ko Diputatuen Kontseiluaren 1/1999 Zerga Premiako Araugintzako Dekretuaren 99. artikuluan daude definituta zergadunak.

Aipatutako 99. artikuluen 1. eta 4. apartatuetan araututako zergadunek 560 eredia aurkeztu beharko dute, edozein dela ere likidazioaren emaitza, salbu eta merkaturatzaileak edo banatzaileak ez direnek, haiek ez baitute nahitaez aurkeztu beharko, ordaindu beharreko kuotarik sortzen ez den likidazio aldiei dagokienez.

3. artikulua. 560 eredia aurkezteko epeak

Kasuan kasuko likidazio aldia amaitu eta hurrengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da 560 eredia eta ordainduko da zerga zorra, hala badagokio.

Likidazio aldia urtekoa denean, aldi hori amaitu eta hurrengo apirilko hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztuko da 560 eredia eta ordainduko da zerga zorra, hala badagokio.

4. artikulua. 560 eredia aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta prozedura

Bat. 560 eredia telematikoki aurkeztuko da nahitaez, bat etorritik azaroaren 20ko 603/2020 Foru Aginduan xedatutakoarekin. Foru agindu horren bidez, zergapeko pertsona eta erakunde jakin batzuek zerga eredu eta eskaerak modu telematikoan, Internet bidez, aurkezteko baldintza orokorrak ezartzen dira.

Aurkezlea Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora konektatuko da 560 eredia aurkezteko, eskuragarri dagoen inprimakia beteko du eta bidali egingo du. Kuotak inprimakian bertan edo testu irekiko fitxategi batean xehakatu ahalko dira, zeinaren ezaugarriak II. eranskinean deskribatzen baitira. Ordaintzeko moduari dagokionez, helbideratuta edo ordainketa gutuna lortuta ordaindu ahalko du.

Bi. Zergadunek 560 eredia aurkeztu beharko dute eta, hala badagokio, haien jarduera gartzeko establezimendu bakoitzeko zerga zorra ordaindu.

Xedapen gehigarri bakarra. Elektrizitatearen gaineko zerga berezia ordaindu behar dutenen erroldaren egitura eta funtzionamendua

Arabako Lurralde Historikoan, otsailaren 25eko HAC/172/2021 Aginduan xedatutakoa aplikatuko da. Agindu horren bidez, elektrizitatearen gaineko zerga berezia ordaindu behar dutenen erroldaren egitura eta funtzionamendua ezartzen dira, eta 560 eredia "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" onesten da eta hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten dira, eta aplikatuko da foru agindu honetan xedatutakoaren aurka ez doan guztian.

Xedapen iragankor bakarra. 560 eredia,
2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako aldiei dagokiena

Arabako Foru Aldundiak, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko likidazio aldiei dagokienez, autolikidazio epez kanpokoak, osagarriak edo zuzentzaileak aurkezteko, bereizitako aurkezpen bat gaituko du egoitza elektronikoa, eta, han, agindu hau indarrean sartzeko den egunean indarrean dagoen ereduari eutsiko dio.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea

Foru Agindu hau indarrean jartzen denetik, indargabetuta geratzen da otsailaren 12ko 52/2015 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 560 eredua “Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa” eta ezartzen baitu hura nola eta zein prozedurari jarraituz aurkeztu.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea

Agindu hau ALHAO argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2022ko urtarriaren 1etik aurrerako sortzapenetan aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 3a

*Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun,
Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasunaren zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

560 eredia

Elektrizitatearen gaineko Zerga Berezia

JARRAIBIDEAK**Identifikazioa:**

IFZ eremua zergapekoaren zerga identifikazioko zenbakiarekin bete behar da. EIK atalean adierazi behar dena da autolikidazioan azaltzen den establezimenduaren Elektrizitatearen Identifikazio Kodea. Baldin eta autolikidazio zentralizatua bada, ez da beteko EIK atala.

Sortzapena:

Ekitaldia: aitorpenean adierazitako zergaldiari dagokion urtearen lau zifrak jarri behar dira.

Zergaldia:

1H= 1. hiruilekoa 2H= 2. hiruilekoa 3H= 3. hiruilekoa 4H= 4. hiruilekoa
01 = urtaraila 02 = otsaila 03 = martxoa 04 = apirila
05 = maiatza 06 = ekaina 07 = uztaila 08 = abuztua
09 = iraila 10 = urria 11 = azaroa 12 = abendua
OU= urtekoa

Likidazioa:

Zerga oinarria (1): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitatei dagozkien zerga oinarrien zenbateko osoa.

Zerga oinarriaren zenbatekoa hau da: balio erantsiaren gaineko zergaren aplikazio lurraldean loturarik gabeko pertsonen artean egindako energia elektrikoaren kostu bidezko hornidura batek balio erantsiaren gaineko zergaren tributaziorako edukiko lukeen zerga oinarria (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992ko Legeak 78. eta 79. artikuluetan arautzen duenarekin bat etorri), elektrizitatearen gaineko zergaren beraren kuotak kenduta.

Zerga oinarriaren zenbatekoa eurotan adieraziko da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Likidazio oinarria (2): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitatei dagozkien zerga oinarrien zenbateko osoa.

Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga oinarriaren laukian aitoritutako zenbatekoaren gainean aplikatu beharreko lege zuzenaren murrizketak egiten dira.

Murrizketarik egin behar ez bada, likidazio oinarriaren zenbatekoa zerga oinarriaren laukian adierazitako zenbatekoaren berdina izango da.

Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Arauazko Dekretuaren 101. artikuluan 1. apartatuan xedatutako murriztapen bat egin behar bada, likidazio oinarriaren zenbatekoa kalkulatzeko, zerga oinarriaren laukian aitoritutako zenbatekoari % 85eko murrizketa aplikatuko zaio 1. apartatuan xedatutako erabileretako batzuetarako erabiltzen den energia elektrikoaren kopuruari.

Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Arauazko Dekretuaren 101. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan xedatutako murriztapen bat egin behar bada, likidazio oinarria zero izango da, eta kalkulatzeko, zerga oinarriaren laukian aitoritutako zenbatekoari % 100eko murrizketa aplikatuko zaio.

Likidazio oinarriaren zenbatekoa eurotan adieraziko da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Kuota osoa (3): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitatei dagozkien kuota osoen zenbateko osoa.

Kuota osoa kalkulatzeko, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Arauazko Dekretuaren 102. artikuluan 1. paragrafoan xedaturiko zerga tasa aplikatu behar zaio likidazio oinarriaren laukian aitoritutako zenbatekoari.

Kuota osoaren zenbatekoa eurotan adieraziko da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Modelo 560

Impuesto Especial sobre la Electricidad

INSTRUCCIONES**Identificación:**

El campo NIF debe cumplimentarse con el número de identificación fiscal del obligado tributario. En el apartado CIE se hará constar el código de identificación de electricidad del establecimiento al que se refiere la autoliquidación. Si se trata de una autoliquidación centralizada, no se cumplimentará el apartado CIE.

Devengo:

Ejercicio: deberán consignar se las cuatro cifras del año al que corresponde el periodo por el que se efectúa la declaración.

Periodo:

1T= 1. trimestre 2T= 2. trimestre 3T= 3. trimestre 4T= 4. trimestre
01 = enero 02 = febrero 03 = marzo 04 = abril
05 = mayo 06 = junio 07 = julio 08 = agosto
09= septiembre 10 = octubre 11 = noviembre 12 = diciembre
0A= anual

Liquidación:

Base imponible (1): Importe total de las bases imponibles correspondientes a los hechos imponibles devengados durante el periodo objeto de liquidación.

El importe de la base imponible está constituido por el importe de la base imponible que se habría determinado a efectos del Impuesto sobre el Valor Añadido, excluidas las cuotas del propio Impuesto Especial sobre la Electricidad, para un suministro de energía eléctrica efectuado a título oneroso dentro del territorio de aplicación del Impuesto sobre el Valor Añadido entre personas no vinculadas conforme a lo establecido en los artículos 78 y 79 del Decreto Foral Normativo 12/1993, del Impuesto sobre el Valor Añadido.

El importe de la base imponible debe expresarse en euros con dos decimales, redondeado por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

Base liquidable (2): Importe total de las bases liquidables correspondiente a los hechos imponibles devengados durante el periodo objeto de liquidación.

La base liquidable resulta de practicar sobre el importe declarado en la casilla de base imponible las reducciones legalmente previstas que, en su caso, sean de aplicación.

En caso de que no proceda practicar ninguna reducción, el importe de la base liquidable será idéntico al importe declarado en la casilla de base imponible.

En caso de que proceda practicar cualquiera de las reducciones dispuestas en el apartado 1 del artículo 101 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999 de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, el importe de la base liquidable resultará de aplicar sobre el importe declarado en la casilla de base imponible una reducción del 85%.

En caso de que proceda practicar la reducción dispuesta en los apartados 2 y 3 del artículo 101 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999 de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, el importe de la base liquidable será cero y resultará de aplicar sobre el importe declarado en la casilla de base imponible una reducción del 100 %.

El importe de la base liquidable debe expresarse en euros con dos decimales, redondeado por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

Cuota íntegra (3): Importe total de las cuotas íntegras correspondiente a los hechos imponibles devengados durante el periodo objeto de liquidación.

La cuota íntegra resulta de aplicar sobre el importe declarado en la casilla de base liquidable el tipo impositivo previsto en el apartado 1 del artículo 102 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999 de 16 de febrero, de Impuestos Especiales.

El importe de la cuota íntegra debe expresarse en euros con dos decimales, redondeado por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

Kantitatea (4): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitateei dagokien energia elektriko hornituaren edo kontsumituaren kantitate osoa.

Kantitatea megawatt-ordutan adierazi behar da, hiru hamartarrekin, biribiltzeko arau orokorrak aplikatuz; hau da, laugarren hamartarra 5 edo handiago bada, hirugarren hamartarra unitate batean handituko da, eta txikiagoa bada, hirugarren hamartarra ez da aldatuko.

Gutxieneko kuota osoa (5): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitateei dagozkien kuota osoen zenbateko osoa.

Gutxieneko kuota osoa kalkulatzeko, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 102. artikuluan xedaturiko zerga tasa aplikatu behar zaio kantitate laukian aitortutako zenbatekoari, zer dagokion.

Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 101. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) edo d) letretan xedatutako murriztapenetako edozein egjin bada zerga oinarriaren laukian aitortutako zenbatekoan, gutxieneko kuota osoa zero izango da.

Gutxieneko kuota osoaren zenbatekoa eurotan adieraziko da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Ordaindu beharreko kuota osoa (6): ordaindu beharreko kuota osoen zenbateko osoa.

Ordaindu beharreko kuota osoa kalkulatzeko, kuota osoaren eta gutxieneko kuota osoaren aurreko laukietan aitortutako zenbatekoak batuko dira.

Ordaindu beharreko kuota osoaren zenbatekoa eurotan adieraziko da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Cantidad (4): Cantidad total de energía eléctrica suministrada o consumida correspondiente a los hechos imponible devengados durante el periodo objeto de liquidación.

La cantidad debe expresarse en megavatios-hora con tres decimales aplicando las reglas generales de redondeo, es decir, si el cuarto decimal es mayor o igual a 5 el tercer decimal se incrementa en una unidad y si es menor el tercer decimal no se modifica.

Cuota íntegra mínima (5): Importe total de las cuotas íntegras correspondiente a los hechos imponible devengados durante el periodo objeto de liquidación.

La cuota íntegra mínima resulta de aplicar sobre la cantidad declarada en la casilla de cantidad el tipo impositivo dispuesto en el artículo 102 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999 de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, según corresponda.

En caso de que se hubiese practicado sobre el importe declarado en la casilla de base imponible cualquiera de las reducciones dispuestas en las letras a), b), c) o d) del apartado 1 del artículo 101 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999 de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, la cuota íntegra mínima será cero.

El importe de la cuota íntegra mínima debe expresarse en euros con dos decimales, redondeado por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

Total cuota íntegra (6): Importe total de las cuotas íntegras que resulten a ingresar.

La cuota íntegra a ingresar será la suma de los importes declarados en las anteriores casillas de cuota íntegra y de cuota íntegra mínima.

El importe de la cuota íntegra a ingresar debe expresarse en euros con dos decimales, redondeado por defecto o por exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

II. ERANSKINA

560 eredia – Aitortutako kuota eta kopuruen xehakapen fitxategia

Inportatu beharreko fitxategiak testu formatua izango du, (;) karaktereak bereiziz eremuak.

Eremu guztiak adierazi behar dira; eremu bat bete behar ez bada, jarri beharreko puntu eta koma jarri behar da.

Gehienez ere, 1.000 erregistro inportatu ahal izango dira.

Erregistroaren formatua:

Eremua	Luzera	Mota	Deskribapena	Ereduaren gakoa
1	6	AN	Zerga araubidea	C610
2	13	AN	EIK	C611
3	15,2	N	Zerga oinarria	C612
4	15,2	N	Murrizketaren zenbatekoa	C613
5	15,2	N	Likidazio oinarria	C614
6	15,3	N	Kopurua	C615
7	17	AN	Hartzailearen IFZ	C616
8	13	AN	Hartzailearen EIK	C617
9	1	AN	Tentsioa	C618
10	1	AN	Kontzeptua	C619

Datu motak: balio alfanumerikoak (AN) eta zenbakizko balioak (N) izango dira, eta balio negatiboak onartzen dituzte.

Adibidea:

94.4;ES00002LC003M;689580,99;26770,66;662.810,33;12345,678;aXXXXXXXXX;;;;

98.1C;ES00002LC003M;689580,99;26770,66;662.810,33;12345,678;aXXXXXXXXX;;A;;

98.2;ES00002LC003M;689580,99;26770,66;662.810,33;12345,678;aXXXXXXXXX;;;R;

Zerga araubideak:

Kodea	Deskribapena
94.1	Salbuetsita (ZBLaren 94.1 art. / ZBZPADaren 97.1 art.)
94.2	Salbuetsita (ZBLaren 94.2 art. / ZBZPADaren 97.2 art.)
94.3	Salbuetsita (ZBLaren 94.3 art. / ZBZPADaren 97.3 art.)
94.4	Salbuetsita (ZBLaren 94.4 art. / ZBZPADaren 97.4 art.)
94.5	Salbuetsita (ZBLaren 94.5 art. / ZBZPADaren 97.5 art.)
94.6	Salbuetsita (ZBLaren 94.6 art. / ZBZPADaren 97.6 art.)
94.7	Salbuetsita (ZBLaren 94.7 art. / ZBZPADaren 97.7 art.)
94.8	Salbuetsita (ZBLaren 94.8 art. / ZBZPADaren 97.8 art.)
94.9	Salbuetsita (ZBLaren 94.9 art. / ZBZPADaren 97.9 art.)

98.1A	Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.a) art. / ZBZPADaren 101.1.a) art.)
98.1B	Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.b) art. / ZBZPADaren 101.1.b) art.)
98.1C	Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.c) art. / ZBZPADaren 101.1.c) art.)
98.1D	Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.d) art. / ZBZPADaren 101.1.d) art.)
98.1E	Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.e) art. / ZBZPADaren 101.1.e) art.)
98.1F	Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.f) art. / ZBZPADaren 101.1.f) art.)
98.2	Murrizketarekin (ZBLaren 98.2 art. / ZBZPADaren 101.2 art.)
98.3	Murrizketarekin (ZBLaren 98.3 art. / ZBZPADaren 101.3 art.)

Eremuen deskribapena:

Zerga araubidea	EIK (1)	Zerga oinarria (2)	Murrizketa (3)	Likidazio oinarria (4)	Kopurua (5)	Hartzailearen IFZ (6.1)	Hartzailearen EIK (6.2)	Tentsioa (7)	Kontzeptua (8)
Salbuetsita (ZBLaren 94.1 art. / ZBZPADaren 97.1 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.2 art. / ZBZPADaren 97.2 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.3 art. / ZBZPADaren 97.3 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.4 art. / ZBZPADaren 97.4 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.5 art. / ZBZPADaren 97.5 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.6 art. / ZBZPADaren 97.6 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.7 art. / ZBZPADaren 97.7 art.)									

Salbuetsita (ZBLaren 94.8 art. / ZBZPADaren 97.8 art.)									
Salbuetsita (ZBLaren 94.9 art. / ZBZPADaren 97.9 art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.a) art. / ZBZPADaren 101.1.a) art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.b) art. / ZBZPADaren 101.1.b) art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.c) art. / ZBZPADaren 101.1.c) art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.d) art. / ZBZPADaren 101.1.d) art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.e) art. / ZBZPADaren 101.1.e) art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.1.f) art. / ZBZPADaren 101.1.f) art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.2 art. / ZBZPADaren 101.2 art.)									
Murrizketarekin (ZBLaren 98.3 art. / ZBZPADaren 101.3 art.)									

Aurreko taularen arabera hartzaile bera zerga araubide desberdineko horniduraz hornitzen bada, xehakapen hau bereizita bete behar da, zein zerga araubide aplikatu den.

Laukien edukia hau da:

EIK (1): zergadunari dagokion EIK, xehakapenaren datuak EIK mailan aitortu behar baitira.

Zerga oinarria (2): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitateari dagokion zerga oinarriaren zenbatekoa, zeina eratzten baitu balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako zehaztutako zerga oinarriak, kenduta elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren beraren kuotak, balio erantsiaren gaineko zergaren aplikazio lurraldearen barruan loturarik gabeko pertsonak

kostu bidez egindako energia elektrikoaren hornidurarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 12/1993 Araugintzako Foru Dekreturen 78. eta 79. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Zerga oinarriaren zenbatekoa eurotan adierazi behar da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Murrizketa (3): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitateari dagokion zerga oinarri aitortuari aplikatutako murrizketaren zenbatekoa.

Baldin eta Zerga Berezien otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 101. artikuluko 1. apartatuan xedatutako murrizketetako bat aplikatu bada, esleitu beharreko zenbatekoa aitortutako zerga oinarri aitortuaren % 85 izango da. Baldin eta Zerga Berezien otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 101. artikuluko 2. apartatuan edo 3.ean xedatutako murrizketetako bat aplikatu bada, esleitu beharreko zenbatekoa aitortutako zerga oinarri aitortuaren % 100 izango da. Murrizketarik aplikatu ez bada, esleitu beharreko zenbatekoa zero izango da.

Murrizketaren zenbatekoa eurotan adierazi behar da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Likidazio oinarria (4): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitateari dagokion eragiketarik (zerga oinarriaren eta murrizketaren aldea) ateratako emaitzaren likidazio oinarriaren zenbatekoa.

Likidazio oinarria eurotan adierazi behar da, bi hamartarrekin, txikiagora edo handiagora biribilduta, hirugarren zifra hamartarra 5 baino txikiagoa edo handiagoa den kontuan izanik.

Kopurua (5): likidazioaren xede den aldian sortutako zerga egitateari dagokion energia elektriko hornitu edo kontsumituaren kopurua.

Kopurua megawatt-ordutan adierazi behar da, hiru dezimalekin, biribiltzeko arau orokorrak aplikatuz; hau da, laugarren dezimala 5 edo handiagoa bada, hirugarren dezimala unitate batean handituko da, eta txikiagoa bada, hirugarren dezimala ez da aldatuko.

Hartzailearen IFZ (6.1): hartzaileari dagokion IFZ, IFZ-BEZ edo AIZ.

Hartzailearen EIK (6.2): hartzaileari dagokion EIK. Lauki hau ez da bete behar hartzaileak EIK ez badu.

Tentsioa (7): energia elektrikoaren hornidurari edo kontsumoari dagokion tentsioa, zeina bete behar baita, sektoreko legerian xedatutakoaren arabera, hornidura edo kontsumoa goi tentsiokoa baino ez denean (A letrarekin beteko da). Gainerako kasuetan, lauki hau ez da bete behar.

Kontzeptua (8): likidazioaren arrazoia, zeina soilik bete behar baita likidazioa datorrenean onuradunak salbuespenen edo murrizketen gainean jakinarazitako aldaketen (R letrarekin beteko da) edo merkatu operadoreak jakinarazitako aldaketen (D letrarekin beteko da) ondoriozko erregularizaziotik. Gainerako kasuetan, lauki hau ez da bete behar.